



Luzatu bostekoa
eta **PARTE HARTU**



Helduentzako

Gida Didaktikoa

2020-2021 Kanpaina Instituzionala

 **Caritas**

Luzatu bostekoa eta PARTE HARTU

“Bizi dugun bolada honetako egoerak kinka larrian jarri ditu ziurtasun asko eta asko. Geure larruan bizi izan ditugu izaki mugatuak izatearen ondorioak, askatasunak murriztu dizkigute, eta pobreak eta ahulago sentitu gara.

Askok lana eta maiteenak ditugun afektuak galdu izana, denok egin behar izan diegu uko harreman interpersonalei, eta horrek guztiak, bat-batean, ustez itxiak zeudela ziruditen bide dezente ireki ditu.


Gure oparotasun espiritual eta materiala kolokan jarriak izan dira, eta beldurrak hartu gaitu. Nor bere etxearen isiltasunean, soilki bizi eta bizitzaren muinari eutsi beharrraren garrantziaz jabetu gara. Senidetasun berri bat umotzen ere hasi gara, elkarri laguntzeko eta elkar maitatzeko gai izateko beharrezko zelakoan. Oraingoa, beraz, sasoi ezin aproposagoa da «elkarren premia dugula, elkarren erantzule garela eta munduaz arduratu behar dugula berriz sentitzeko [...]». Gure gainbehera moralak luzeegi iraun du: denbora gehiegi eman dugu etikari, ontasunari, fedeari, zintotasunari burla egiten [...]. Bizitza sozialaren oinarriak suntsitu ditugu, eta horrek, nor bere interesei kosta ahala kosta eutsi nahi izatearekin batera, gizakiok elkarren kontra jarri, eta, indarkeria- eta krudelkeria-mota berriak sortzea ekarri du, eta zaintzaren kultura bat loratzea galarazi» (*Laudato si'*, 229). Laburbilduz, lagun hurkoarenganako eta pertsona bakoitzarenganako dugun erantzukizunaz jabetu gabe eta lozorroan jarraitzen duen bitartean, krisi ekonomiko, finantzario eta politikoak ez dira sekula amaituko.

(Frantzisko Aita Santuaren mezua, Pobreen Munduko I Jardunaldia).

Mundu oso-osoan sufritu ditugu gaixotasuna eta konfinamendua, oinazea eta heriotza, pobrezia eta bakardadea, hauskortasuna eta solidaritatea... Zer geratu ote zaigu esperientzia horretatik?

Eta hau guztitik, zer ikasi dugu?

Zer geratzen zaigu oraindik amaindu ez duen ekaitz baten erdian?




Aurkezpena

Bizitzen ari garen egoerak gogor astindu du mundua, eta kinka larrian jarri ditu ziurtasun asko eta asko. Hauskortasunak batu gaitu, galeraren oinazean, gaixotasunean, eta beldurrean... Baina baita solidaritatean, eskuzabaltasunean, bestea aintzat hartzean eta elkarri eskertuta egotean batu gaitu. Eta Caritas horren guztiaren gertu-gertuko lekukoa izan da.

Gure balkoitik, mundua ikusi dugu. Mundua aldatu dugu, itxaropena ernatuz, elkarri irriak opari eginez, nor bere burua eskainiz besteak zaintzeko... Ukitzeko aukera izan dugun garaian, orduantxe luzatu diogu eskua elkarri, batak bestea ukitu gabe elkar laztantzeko, zaintzeko, maitatzeko.

Uste zabaldua da daukagun oro merezita daukagula, norberak erositia, norbere lanaren ordain gisa jaso edo, besterik gabe, eskubidez jabetzan hartua izan delako. Krisi honek, horri buruzko iritzia aldatzeko aukera eman dugu. Konturatu gara gure ondasun guztiak, gure bizi-kalitatea hobetzen dutenak, elkarri lotuta egoteri eta interdependenteak izateari esker dauzkagula, eta orobat norberak gizarteari ematen diona berez dela baliagarri. Gutariko bakoitzaren lanak, berdin dio bizilagun gisa edo ta sendagile, banatzaile, okin nahiz beste zernahi gisa egiten dugunak, baliabide-sare batean lotzen gaitu batak besteari, eta horrexek hobetzen du denon bizitza. Keinu bakoitzak, elkarri eskua luzatzen diogun aldi bakoitzak, komunitatea josteko balio du.



Zer ikasi dugun

Covid-19aren ondoren ere, betiko giza arraza berbera izaten jarraitzen dugu: bizitza askatasunez goberna, zaindu, defenda, eraiki, sorberri, susta eta errukia senti zezan Jainkoak maitasunez sortu zuen huraxe, alegia. Baina gogotik ikasi dugu ahuldadea eta ziurgabetasuna. Ohartu gara, zapaltzen dugun lurra ez dela dirudien bezain sendoa, xomorro bat aski dela, denok hankaz gora jartzeko... Tragikoa ere eman dezake, baina itxaropen eta bizitasun mezua: Gure bizitza ahula da, bakarra, ekaitz bakar batekin hautsi daiteke. Bizitza bat besterik ez daukagunez, aprobetxa dezagun bere osotasunean, eskuzabaltasunez eta esker onez, ez baitakigu noiz arte biziko garen. Ez gara betierekoak, ez eta unibertsoaren zilborra ere.

Komunitate berri bat sortzeko aukera dugu, bata bestearen bidera irten behar dugu, eta gure bizikidetza harmoniatsuagoa izan dadin lortu, ez hain ernegagarria, elkar ulertuz oinaze sozial eta pertsonalak baretzeko gai izan gaitzen.

Bestalde, urruntze sozial ezinbestekoak, elkarrekin egoteko genuen moduak, kolokan jarri du elkarrekin egoteko gaitasuna bera ere. Jaiotzen garenetik, gizakiok besarkadaren beroa behar izaten dugu, babesten, zaintzen... gaituztela sentitzea. Behar hori oinarri-oinarrizkoa da, eta gero ere, bizitzaren joanean, ez da sekula desagertzen, ezta hiltzorian gaudenean ere. Une sakratu horretan sentitzen dugu gehien besteen premia, eta orduantxe jartzen da martxan elkar zaintzeko, babesteko eta maitatzeko gure gaitasuna.

Bizitza hauskor horretan ere bete-bete agertzen zaigu Jainkoaren Erreinua. Jesusek konpainia egiten digu, eta bizkarrean eramaten gaitu horretarako beharra badago ere. Eta guk ere berdin joka dezagula eskatzen digu: solidarioak izan eta, bidean aurrera goazela, bestearen gurutzeta bizkar gainean har dezagula, alegia.

Bizitzen ari garen interdependentzia-egoerak bi aurpegi dauzka: batetik, birusarena, negatiboa, oso kutsagarria dena eta heriotza, oinazea, tristura, bakardadea, pobrezia zabaldu bestetik egiten ez duena; eta, solidaritatearena, positiboa, kutsagarria eta azkar zabaltzen dena, etsaiaren kontra batu gaituena, eta agendetatik eta albistegietatik bigarren mailako arazoak ezabatzea lortu duena. Lagun hurkoa aurkitu dugu, non-eta gugandik hurbilen, izena eta aurpegia duen bizilagunarengan; hortxe ikasi dugu, solidaritate-/eskuzabaltasun-/erruki-keinu txikienen bidez, elkarri nola lagundu.



Ondare komuna lehenetsi dugu, den-denona den hori, norberaren interesen gainetik eta interes kolektibo garrantzitsuagoen mesedetan, eta horrek balio komunitarioak lantzeko bidea eman digu.

Krisi honetatik ezin gara nor bere kasa atera. Denok eta bakoitza gara hauskorrak, eta elkarri eskutik oratuta egingo dugu aurrera, pazientzia handiz, eta ahulenengan begirada jarriz. Horretan, ezinbestekoa izango da bakoitzaren indarrak eta gaitasunak besteenei batzea, egoera honetatik irten, eta elkarrekin mundu gizatiarrago eta justuago bat eraikitzeko.

Karitatea martxan jartzeko garaia da, bai eta egoerarik lazgarrienean daudenen alde jartzekoa ere. Eta, horretan, ezin zaintzak ahaztu: geure burua zaindu behar dugu, eta besteak, eta kreazioa. Fedearen lekuko izateko garaia da, senidetasunaren sustatzaile eta esperantzaren forjari.


Bizi izan dugun egoera, oso gogorra izanagatik, abagune ugari ere sortu ditu. Kris-tau-elkarteak abegitsuago bihurtu dira krisi honen ondorioz, eta arretatsuago eta eskuzabalago... jokatzen ikasi dute. Askoz ere biziago, bizitza besteen alde emateko prestatuago.

“Luzatu bostekoa eta parte hartu” kanpainaren bidez, bizitzea egokitu zaigun historiako garai honetan gurekin batera modu aktibo eta kontzientean lan egin dezazun nahiko genuke, inor ez baita bere kabuz eta bakarrik irtenbideak, proposamenak eta

bideak bilatzeko gai. Nor bagara, hori horrela da beste pertsona askorekin batera bizi garelako. Giza familia beraren parte gara, eta horren ondorio sakonenen kontzientzia erabatekorik ez badugu ere, historia eta patua bera partekatzen dugu denok. Krea- zioan modu harmoniatsuan elkarrekin bizitzen ikastea, denontzat diren baliabideak modu jasangarri eta arduratsuan erabiltzea, eta elkar zaintzearen eta babestearen aldeko estrategiak lantzea, ate-joka dugun etorkizunerako xede gailenak hirurak ere, **elkarri eskua luzatu eta elkarrekin hitz egitera animatzen gaituztenak**. Bizit- zari eta giza existentziari zentzua emateko moduko keinuak egiteko tenorea da, eta elkarrengana hurbildu eta gure artean solidaritatea ereitekoa ere bai.

Helburuak

- Parrokian, auzoan, herrian eta nor bere inguruan loturak jostearen garrantziaz ja- betzea, eta besteen bidera irtetea (pertonenera nahiz elkarrenera), gertu-gertuko zaintza- eta lankidetzaharremanak sortzeko.
- Elkarrizketaren, entzuketaren, tolerantziaren eta harreman interpertsonalen aldeko jarrerak sustatzea eta dinamizatzea, bai maila indibidualean eta bai maila komuni- tarioan, Eliza elkarteen elkarte izan, horrek ahulenen bizitza hobetu eta gizartean itxaropenezko erreferente nagusi bihurtzeko.
- Gizarte zuzenago eta justuago bat lortzeko bidean, guztiok zer-nolako erantzuki- zunak ditugun jakitea.



Edukia

Ardura publikoko zerbitzuak emateaz areago, Caritasek komunitatea bera du ardatz. Hura da ondare komuna eta lurraldetasuna mamitzen den eremua.¹ Kristau-elkartearen karitate-hazia zabaltzeko lanak antolatzea da bere helburu nagusia, pobreziaren eta esklusioaren arazo larriei aurre egiteko. Covid-19aren osteko gizartea berregiteko lanetan, sinetsita gaude eliz komunitateari berebiziko zeregina dagokiola, eta, hori dela eta, komunitate animazioa bi norabidetan gidatu behar dugu: *ad intra* eta *ad extra*.

Ad intra, karitate eraldatzailea Elizaren egiteko nagusien erdigunean jartzea da Caritasen xede nagusia, eta karitate-eragileak ekintza pastoralaren subjektu protagonista bihur daitezten lortzea ere bai, kristau-identitatea samariarraren karitate-ereduan oinarriturik definitzeko inolako konplexurik gabe, horixe delakoan barne-muinean sinesten, ospatzen eta praktikatzen dugun fedearen funts eta oinarria. Eta karitate sozial horren erregai nagusia errukia da, bai besteei eskaintzen dieguna eta bai besteengandik jasotzen duguna, eta, hain zuzen ere, horrek guztiak zaintzen, babesten, osatzen eta eraldatzen gaitu.²

Ad extra, berriz, egitura sozial komunitarioa berrosatzen laguntzea da Caritasen egiteko nagusia, zeren egoera honetatik denon artean komunitatea sortzeko gai bagara bakarrik aterako baikara; eta, horretarako, gizarte zibila indartu behar da, eta oinarri sozial sendoa duten taldeak babestu, denon ongiaren aldeko ahalik sare gehienak harilkatzeko. Deslotzearen ideologiari aurre egiteko, Caritasek lotura sendoagoen beharra azpimarratu nahi du, eta "hurkotasuna" balio gisa aintzat hartu, dohainaren doakotasuna defendatu, hurbiltasunaren eta zaintzaren alde apustu egin, pobreenganako solidaritatea bultzatu, eta etorkizun hobe baten bila datozenei harrera abegitsua egitearen aldeko pausoak eman. Beraz, gizartea berregiteko gai izango bagara, karga ideologikorik gabe ehundu beharko ditugu denon ongia lortzearen aldeko sareak, eta bizilagunen arteko lankidetzak sustatu, eta diferentziak baliotzat dituen hezkuntza-eredu bat sortu, eta bizitza erdigunean jarri, tokiko produkzio- eta kontsumo-guneak berreskuratuz, eta hori dena demokrazia parte-hartzailearen ardatzean txertatu.³

Lan komunitarioak inplikazio handiko pertsonak behar ditu, bizi diren herri edo hirian, parrokian eta auzoan buru-belarri esku hartzen duten gizon eta emakumeak. Eta horixe da, hain zuzen, Caritasen egitekorik behinena: karitate-eragile horiek zaintzea,

• • • • •

¹ F. Fontova, "Pensando el mañana", hemen: https://youtu.be/K3o_82oaqTI

² J.I. Calleja, «El Estado y la sociedad nos van a apretar las clavijas económicas, mientras no se vea algo de luz a la crisis», hemen: https://www.religiondigital.org/opinion/Jose-Ignacio-Calleja-Iglesia-intervencion-coronavirus-desescalada-muerte-religion-ritos-caridad-futuro-espana_0_2227277258.html

³ I. Zubero, "Pensando el mañana", hemen: <https://youtu.be/i3wd-sBThHA>

babestea eta heztea. Oraintxe garrantzi handikoa da gure lantaldeak animatzea eta heztea, egoera berrira al bait hobekien egokitu eta krisiari aurre egiteko gai izan daitezten. Pandemiak ezer argi eta garbi erakutsi badigu, boluntarioen belaunaldiarteko erreleboaren berebiziko garrantzia izan da hori; eta, horretarako, batetik, gazteek Caritasen proiektua bizi dezaten lortzea da helburua, eta, bestetik, nagusiek hemendik aurrera zer paper joka dezaketen aztertzea, baina baita krisi betean guregana etorritako boluntario berriak gure lanetan nola has daitezkeen aztertzea ere.

Jainkoaren Erreinua munduan sustraitzea da gure misio nagusia, denek hura ikusteko moduan mamitzea: hortxe gaude gu, horixe da gure lekua. Eta hortixe proposatzen dizkizuegu, hain zuzen, **kanpainaren oinarri diren giltzarri gutxi hauek.**



Interdependentsia, senidetasuna ehuntzeko balio gailena

Covid-19aren eraginez sortutako errealitate berriaren erdian, gutxi-asko denok izan dugu arriskuaren, beldurraren, mehatxuaren eta heriotzaren esperientzia partekatua. XXI. mendeko gizarte globalean, halako zaugarritasun-esperientziarik sekula lehenago bizi gabeak ginen, eta hain mugatuak izateak lekuz kanpo utzi eta ziurgabetasunaren korrontean murgildu gaitu; eta horrelaxe jarraitzen dugu oraindik ere: alarma-egoeran.

Banako eta kolektibo gisa finituak garela ohartu gara, eta kalte egiten edo gogaitzen gaituena ahazteko gizaki gisa dugun joera gorabehera, zaugarri izatearen esperientzia partekatuak sentiberago eta ulerberago egin gaitu besteen oinazearekiko, besteek

Kolektibo baten parte izatearen balioa, komunitate global bihurtzeko gakoa

Konfinatuta egon garen hilabeteetan, bizitza bera egon da mehatxupean, eta ondasun goren horri eustea izan da interes kolektibo nagusia. Bizitza zaindu eta babes-teko, ordea, uko egin behar izan diogu funts-funtsezkoa den beste ondasun bati: askatasunari. Dela beldurragatik, dela obedientziagatik, dela solidaritateagatik, herri-tar gehienek, norik bere ahaleen neurrian eta pertsona guztien osasuna babestearren, kalera irteteari uko egin diote, askok lanpostua galdu dute, eta etorkizuna zartatu zaigu denoi.

Interes indibidualak interes kolektibo gorenaren alde bazter uzteko gai izan gara, eta horrek, ia jabetu ere egin gabe, bizitza komunitarioa lantzeko arrastoan jarri gaitu, gizarte-egitura sarean josteko bidean aurrera egiteko. Gizarte zibilaren parte diren hainbeste lagunek, enpresak eta kolektibok bizitzaren alde elkarrekin egindako lan-eta hainbeste esfortzu batzeko ahalegin-eskerga ez dugu hain erraz ahaztuko,

Politika, hezkuntza, osasuna, etxebizitza, garraioa...: den-denak dira, pertsona batetik bestera dauden aldeak gorabehera, ondasun kolektibo komunitarioak. Bizitza, oinarriko eskubideak, eta harreman politiko, sozial eta ekonomiko jasangarriak babestu nahi baditugu, gai izan behar genuke gure gizartean bertan beren zaugarritasuna-gatik, pobreak izateagatik edo eskusio-egoeran egoteagatik hainbeste eta hainbeste pertsona zaintzeko. Azkenaldian gogotik frogatu dugu besteen alde zernahi egiteko gai garela, eta oraintxe dugu horretaz aprobeztatzeko aukera ezin hobea.



Zaintzaren eta laguntzaren balioa, aldi berean, eskubide eta erantzukizun

Izaki sozialak garenez gero, gizakiok jaiotzen garenetik behar izaten ditugu besteen besarkadak, hatsa eta begirada, besteen zaintzak, babesa eta laguntza. Amaren sabelean gaudenetik eta bizi artean sentitzen dugun oinarri-oinarrizko behar hori hil hurren gaudenean ere ez da desagertzen; are gehiago: une sakratu horretan sentitzen dugu gehien besteen premia, eta orduantxe jartzen da martxan elkar zaintzeko, babesteko eta maitatzeko gure gaitasuna.

Maitasuna da zaintzen eta akonpainamenduaren ardatza, eta bi horiek erantzukizun edo betebehartzat jotzen badira, gainera, maitasuna dohain bihurtzen da. Zaindua edo babestua izatearen esperientziak gizakiaren existentzia osoa duintzen du, maitasunaren objektu bihurtzen duenez gero, eta maitasuna da bizitzako ondasun gorena, bizitzari zentzu betea ematen diona.

Konfinamenduak eta urruntze sozial ezinbestekoak, elkarrekin egoteko genuen modua ez ezik, kolokan jarri dute elkarrekin egoteko gaitasuna bera ere. Elkar ukitzeari utzi behar izan diogu, bata bestetik urrundu beharrak besarkadak eta musuak kapsulatu ditu, eta urrutitik bada ere, leihoak ireki ditugu, bai etxeak eta bai digitalak, elkar besarkatzeko; harreman interpersonalak pantailaren atzean parapetatu ditugu, eta horrek ezinezko egin du usainak, bihotz-taupadak eta ferekak partekatzea; baliteke gure begirada ere motzagoa eta miopia handiagoa izatea orain. Hori guztia dela eta, behar-beharrezkoa zaigu harremanak ehuntzea, bakarrik daudenekin egotea, eta babesgabeenak eta kalteberenak zaintzea.

Akonpainamenduak eta zaintzek, gainera, mistikaren beharra ere badute: gure konpromiso sozialari eusteko eta zaurgarritasun humano eta ekologikoaren zaintzaile izan beharra elikatzeko, espiritualtasunaren premia gorria dugu. Izan ere, doktrinekin bakarrik eta mistika pizgarririk gabe, nekez izango gara gai ate-joka ditugun desafio larriei aurre egiteko beharrezkoak diren konpromisoak geure gain hartzeko: norberaren muin-muineko arrazoiek zirikatu eta motibatu behar dituzte pertsona eta komunitate gisa martxan jarritako ekintzak, zentzua izango badute (Laudato si', 216).

Zaintzaren pasioa elikatzen duen espiritualtasun horrek gure fedearen jomuga den Jainkoa bera du oinarri: Jainko zaintzahalduna. Salbamenaren historia alderik alde zeharkatzen du Jainkoaren zaintzaile-izaera horrek; Jainkoa errukitsua da, eta ezin konta ahal aukera ematen dizkigu pertsona edo herri gisa aldatzeko, elkarrekin adiskidetzeko, gure arteko harre-

manak eraldatzeko, eta kreaioa bera etengabe sorberritzeko (Is 49,15, Os 11,1-8). Jainkoak bere baratzearen zaintzaile egin gintuen (Has 2,15). Gure erreferentea Jesus da, samariar ona, gizon egindako Jainkoaren semea, gure gizatasunaren edozein alderdik oinazea eragiten digunean gure ondoan dagoena, gu zaintzeko, zauriak sendatzeko eta berriz ere altxatzen laguntzeko.

Bidera irteten den komunitatearen balioa

Geure burua zaugarri sentitu dugu, eta horrek ikusarazi digu ez garela unibertsoaren zilborra, ez eta askotan uste izaten dugun bezain ahalguztidunak ere. Mundu honetan egoteko dugun moduak frogatzen du gure sen harrapakaria onartzeko prest gauden baino handiagoa dela. Gurea oso espezie krudela da: natura-baliabideak neurrigabe erabiltzen ditugu, eta mundu osoko gobernantza-sistemek ez ikusi egiten diote babes, etxe eta aukera berrien bila ihesi dabiltzan milioika gizon-emakumeren muturreko pobrezia; baina bizia besteen alde emateko gai ere bagara: izaki eskuzabalak, irudimena, gaitasunak, ezagutzak, baliabideak, elkar babesteko abileziak eta solidaritatea batzeko gai garenak..

Covid-19ak ez gaitu ez pertsona hobeak ez okerragoak egin. Betiko giza arraza berbera izaten jarraitzen dugu: bizitza askatasunez goberna, zaindu, defenda, eraiki, sorberri, susta eta errukia senti zezan Jainkoak maitasunez sortu zuen huraxe, alegia. Sekulako zaugarritasun-esperientzia bizi izan dugu, baina horrek gizatasun berri bat sortzeko aukera eman beharko liguke: bata bestearen bidera irten behar dugu, eta gure bizikidetzaren harmoniatsua goa izan dadin lortu, ez hain ernegagarria, elkar ulertuz oinaze sozial eta pertsonalak baretzeko gai izan gaitezten.

Bata bestearen bidera irten behar dugu, beraz, orainetik abiatuta geroa eraikitzeko, eta komunitatea ehunduz eta errukia, zaintzak, lankidetzaren eta goxotasuna aintzat hartuz, garena eta daukaguna partekatu eta "elkarrekin bizitzearen kultura" umotzeko.

"Hortaz, parroquia «elkarrekin egote» hori errazteko moduko gune bihurtu behar dugu, harreman pertsonalak gero eta iraunkorragoak izan daitezten eta bakoitza bertako kide maitatu senti dadin. Parrokiei «gertutasunaren artea» lantzeko ardura dagokie. Erroak ongi boteak badituzte, parrokiak dira hainbeste gizon eta emakumeri erasaten dien bakardadeari aurre egiteko tokirik aproposenak"⁴.

• • • • •

⁴ kleroarentzako kongregazioa, "La conversión pastoral de la comunidad parroquial al servicio de la misión evangelizadora de la Iglesia". Jarraibide pastoral, 2020-07-20. Erroma, 25-26.

Eta zeregin erraldoi eta zirrara garri horretan, esperantzari eta konfiantzari eutsi behar diegu, tinko, horrek martxan jar gaitzan, nor bere mundu txikitik abiatuta aurrera egin eta gurea bezain sakratuak diren beste bizitza txiki horiek osatzen duten unitate handiarekin bat egiteko.



Erantzukizun partekatuak nor bere gain hartzearen balioa

Krisi honetatik ezin gara nor bere kasa atera. Ahultasun partekatuaren aurrean, eskutik joan behar dugu, elkarren mendekoak baikara. Pazientzia handiko pertsonak behar dira, ahulenei begira jarriak, eta akordioak lortzeko eta aplikatzeko borondate sendoa dutenak. Horretan, ezinbestekoa izango da bakoitzaren indar eta gaitasunak besteenei batzea, elkarrekin, egoera honetatik irteten lagundu, eta gizarte, herri eta gizarte gizatiarrago eta justuago bat eraikitzeko.

Gurea ezin da indiferentziaren, ahanzturaren eta zatiketaren garaia izan, karitate eta esperantza aktiboena baizik: orain inoiz baino gehiago, pertsona zaurgarrienen alde egin behar dugu, oinazetik latzenez bizi direnen alde. Eta, horretan, ezin zaintzak ahaztu: geure burua zaindu behar dugu, eta besteak, eta kreaioa. Desberdintasunak murriztu eta injustiziak zuzentzearen alde bata bestearen ondoan buru-belarri borrokatzeko garaia da, horrek guztiak azpiak jaten baitizkio gizon-emakume guztion osasunari. Labur esanda, gure hau gizakiaren garaia da, bai eta fedearen lekuko izatekoa, senidetasuna sustatzekoa, esperantza errotzekoa.

Hori guztia dela tarteko, hain zuzen, geure buruari galdetu beharko genioke ea zer egin dezakegun bihotzean esperantza eta konfiantza erna dakizkigun, biak ere, esperantza eta konfiantza, guztiz beharrezkoak baitzaizkigu gaur egun.

Elkarrekin hausnartzeko

Jarraian, hiru testu proposatzen dizkizuegu, bakarka nahiz taldeka landu ditzazuen, bai eta zenbait galdera ere, elkarrekin gogoeta egiten lagunduko dizuetenak:

1. testua

“Jesus honela ari zitzaiela, magistratu bat hurbildu zitzaion eta, ahuspezturik, esan zion: «Hil berria dut alaba; baina zatoz hari eskua ezartzera, eta biziko da». Jaiki zen Jesus eta ondoren joan zitzaion bere ikasleekin.

Orduan, hamabi odoljarior zegoen emakume bat atzetik hurbildu zitzaion Jesusi eta soineko-ertza ukitu zion; honela baitzioen berekiko: «Jantzia ukitzen badiot, besterik gabe sendatuko naiz».

Itzuli zen Jesus eta, emakumea ikustean, esan zion: «Animo alaba, zeure sinesmenak sendatu zaitu!». Eta une hartatik sendatua gelditu zen emakumea.

Magistatuaren etxera heldu eta hango erostariak eta jendearen istilua ikustean, Jesusek esan zien: «Alde hemendik! Neskatxa ez dago hilda, lo dago». Haiek barre egin zioten.

Jendea kanpora bidali zutenean, Jesus, sartu, eskutik heldu, eta neskatxa altxatu egin zen. Eskualde guztian zabaldu zen gertatuaren berri”. (Mt 9, 18-26).

- *Zer balio eta jarrera dira beharrezkoak, zure ustez, interdependentzia lantzeko?*
- *Mateoren irakurgaian, buruzagia eta emakumea zerbaitek bultzatuta bezala hurbildu zitzaizkion Jesusi. Zerk eraman zituen harengana? Zerk bultzatzen zaitu zu laguntza eskatzera eta besteei laguntzera?*
- *Zeure esperientzian oinarriturik, esplikatuz zer-nolako loturak sortzen dituen interdependentziak zure eta besteen artean.*
- *Bilatu zeure barne-muinean, eta ekarri gogora besteek lagundu, salbatu edota sendatu izan zaituzteneko konfiantzazko esperientzia bat edo beste. Besteen zer hitz edo keinutan hartu duzu babes?*

2. testua

“Zerbait existitzeko eta bere existentzian irauteko baldintza ezinbestekoa da zaintza. Zaintzarik gabe, praxiak konstruktiboa eta askatzaile izateari uzten dio, eta ekintza inkontziente bihurtzen da: ekin behar burugabe hutsa, alegia. Zaintza maitasunaren formatu bat da, oinarritzkoagoa den maitasunaren hezurramitza.

Gizakiak, giza kondizioaren kontingentziak gainditu eta bere gizatasunari eusteko, zaindua izan behar du. Zaindua izatearen eta zaintzearen, maitatua izatearen eta maitatzearen eta orobat besteez kezkatzearen dinamismo arriskutsu eta itxaropentsu, pasibo eta aktibo horren baitan, gizakiak aurrera egiten du denboraren, espazioaren eta historiaren ardatzean.

Zaintzaren dimentsio hori bizitzean, bere egiazko izatea eta mundu honetan, denboran eta espazioan, Izaterantz doan heinean, besteekin batera bizitzeko duen modu berezia erakusten du gizakiak.

(...) Nork bere burua zaintzea bera ere etikoa da berez, klasikoentzat ethos terminoak horixe esan nahi baitzuen: etxea zaintzea, bai norberaren etxea eta bai denon Etxea (Lurra), bai eta bertan bizi direnak ere. Gaur egun, *ethos-zaintza* hori inoiz baino beharrezkoagoa da, denona den Etxeari bizirik eutsiko badiogu, ez baitauekagu beste etxerik.

Zaintzatik abiatuta bakarrik salbatuko dugu bizitza, babestuko Lurra eta bermatuko planeta-mailako giza proiektuak etorkizuna duela”.

(Leonardo Boff, *Zaintza ezinbestekoa*. Trotta, 2012).

- *Zaugarritasun-egoera kolektiboak kalteberak garela eta bate bestearen mende gaudela ikusarazi digu, eta gure sendotasuna elkar zaintzeko dugun premian dagoela ere bai. Beste pertsona batzuk zaintzearekin lotutako zer esperientzia izan dituzu azken bolada honetan? Eta zeure burua zaintzearekin lotuta?*

- *Taldeka, ekarri gogora Jesus besteen zaintzaile gisa erakusten duten Bibliako pasarteak. Irakurri aukeratutako testua ozen eta imajinatu Jesus zuen parrokiara edo elizbarrutira joaten dela, zuek zaintzera. Nola jokatu luke?*
- *Zertan mamituko litzateke gaur egun, zuri edo zure kristau-elkarteari dagokionez, Boff-ek aipatzen duen zaintza-mota hori?*
- *Denon artean, ekarri gogora urtearen joanean talde gisa zer egin duzuen pertsonen zaintzen alde eta zeuen interes eta helburuen ginetik.*
- *Denon etxea zaintzea eta pertsonak zaintzea estu-estu lotuta daude. Zer egiten duzue zuk eta zure elkartek denon etxea eta pertsonak zaintzeko?*



3. testua

“Hau ez da egoismoaren garaia, ate-joka ditugun desfioek denok batzen gaituelako: ez dago alderik pertsona batetik bestera. Koronabirusak gogorren jo dituen eskualdeen artean, Europa daukat gogoan bereziki. Bigarren Mundu Gerraren ondoren, sekulako solidaritate-espirtua zabaldu zen European barrena, europarrei iraganeko liskarrei aurre egiteko kemena eman ziena, eta horri esker suspertu zen kontinente hori.

Orain ere, gaur egungo zirkunstantziak aintzat hartuta, aspaldiko liskar horiek berriz ez piztea komeni da, eta denok onartzea familia bakarra osatzen dugula, eta, beraz, elkar zaindu behar dugula.

Europar Batasunak desafio historiko itzela dauka aurrean, eta haren geroa bakarrik ez, mundu osoarena ere desafio horri aurre egiteko moduaren baitan dago. Europak ez dezala gal beste behin bere solidaritatearen neurria erakusteko aukera, horretarako soluzio berritzaileak proposatu behar badira ere. Horixe da alternatiba bakarra egoismoaren, interes partikularren eta iraganera itzultzeko tentazioaren aurrean, eta horrelaxe jokatu beharko dugu, hurrengo belaunaldien arteko bizikidetzak baketsua eta garapena arriskuan jarri nahi ez baditugu”.

(Frantzisko aita santua, *Urbi et Orbi* mezua, 2020ko Pazkoa).

- *Pertsona solidarioagoa edo konprometituagoa al zara orain pandemiak eragindako esperientzia bizi aurretik baino? Espplikatu.*
- *Munduaren egoera globalak eta hango eta hemengo herri eta hirietatik iristen zaizkigun albiste gaiztoek gure itzaropena zapuztu dute. Fedea, karitatea eta esperantza elkarri estu lotutako hiru bertute dira, eta denek ere sare trinko bat ehuntzen dute, bizitzan konfiantza izaten, besteekin eta besteen alde bizitzeko solidaritatea umotzen, eta etorkizunera itzaropenez begiratzen laguntzen diguna. Sare horretan, **esperantza da bertuterik ahul eta zaugarriena**, eta horregatik behar ditu zaintza bereziak. **Etengabe landu eta atsedetik gabe aktibatu behar da.***

Zer egin dezakezue zuek zuen inguruan eta parroketan esperantza aktibatzeke? Hona hemen 3 urrats:

1. Eskerrak eman.

Ekarri gogora aurten ikasi duzun zer edo zer, zoriontsu egiten eta bizitzarako dituzun helburuekin lotzen zaituena.

2. Onartu zaugarria zarela.

Identifikatu eta izendatu zure itzal eta beldurrak, zaugarri egiten zaituzten ahulguneak, eta aztertu denak errukiz eta goxotasunez. Gero, hitz egin denok itzal eta ahulgune horiei buruz, eta entzun elkarri arretaz eta errukiz.

3. Inspiratu eta ekin.

Pentsatu nor izan duzun inspirazio-iturri bolada honetan, eta bilatu bizitzen ari garen errealitateari aurre egiteko arrazoi sendoak.

Zer-nolako konpromisoak hartzeko prest nago, hala inspiratuta egoteko eta nire/gure inguruan esperantza zabaltzeko?

Amaitzeko, *Otoitz-giroan*, eman eskerrak **dohaintzat** jaso duzuen **bizitzagatik**.

Mundua opari jaso dugu. Inork ez du bizitzen ari garen historiako aldi hau aukeratu. Maite gaituztenek ez digute ezertxo ere zor. Gure bizitza ez da gure lanaren fruitu soila, ez eta besteek ematen digutenaren emaitza hutsa ere. **Nori eskertu behar diogu sentitzen dugun maitasun hau, bizitzan aurrera egiten laguntzen digun konfiantza hau, sostengatzen gaituen esperantza hau, habitatzen gaituen bizitza hau?**

Denok esperimeta dezakegu bizitza dohain eta opari gisa, Jainkoaren Espiritua denongana berdin-berdin iristen baita; haren maitasunean bermatzen da gutariko bakoitzaren bizitza.

Kantatu dezagun elkarrekin:**Eskerrak bizitzari**

(Violeta Parra)

Eskerrak bizitzari, hainbeste eman dit.
 Begi bi eman dizkit, horiek zabaltzerako
 bikain bereizten dut zuria eta beltza artean
 eta hondoa izartsua zero urrunean
 eta jendetzan gizona, nik dudana maitea.

Eskerrak bizitzari, hainbeste eman dit.
 Entzumena eman dit, bere ahal osoan
 gau eta egun aditzen kilker eta kanarioak;
 mailuak, turbinak, zaunkak, euri-orroak
 eta nire maitatuaren ahots gozoak.

Eskerrak bizitzari, hainbeste eman dit.
 Soinua eman dit eta abezedarioa
 horrekin pentsatutako hitzak eta esandakoak
 ama lagun neba, eta argiaren abaroan
 ikusten dut maite dudan horren arima nora doan.

Eskerrak bizitzari, hainbeste eman dit.
 Eman dit nire oin nekatuen ibilia
 horiekin zeharkatu nituen putzuak eta hiriak
 hondartzak, desertuak, ibarrak eta mendiak
 eta zure etxea, kalea eta lorategia.
 Eskerrak bizitzari, hainbeste eman dit.

Eman zidan gainezka egiten duen bihotza
 ikustean giza garunaren aitortza,
 ikustean gaiztoarengandik urrun zintzoa,
 ikustean zure begi argien hondoa.
 Eskerrak bizitzari, hainbeste eman dit.

Irria eman dit eta eman dit lantua,
 horrela bereizten dut zoriona eta dolua
 bi horiek dute osatzen nire kantua
 eta kantua bera zuen kantua
 eta guztien kantua da neure kantua.

Talde-dinamika

Bizitza besteen alde ematearen oparia

Helburuak

- Covid-19aren pandemian zehar sortutako lotura solidarioak sendotzea.
- Batzen gaituen interdependentziaren nondik norakoak erakustea, eta ulertzea besteei laguntzeak nola, besteei ez ezik, guri ere laguntzen digun.
- Komunitate eskuzabala bultzatzea, bertako hartzaileak eta pertsona ahulenak, zaintzen eta haien premiak dituenak.

Materialak

“Vecinos” film laburra



<https://www.youtube.com/watch?v=DzMqy5KPVik>

Zer egingo dugu?

Covid-19aren pandemian, gutxi-asko denok bizi izan ditugu esperientzia zail eta mingarriak. Beldurra, aukeratu gabeko bakardadea, hildakoak, bizikidetza-tirabirak... Baina orobat konturatu gara besteenganako interesak, zaintzek eta eskuzabaltasunak batzen gaituztela zaurgarritasunak adina —birusak, txikia izangatik, denok jo gaitzake—. Eskularruak, maskarak erabili ditugu babesteko, eta gertukoenen premiei ere erantzun diegu aldi berean. Eta, sarritan, bizilaguna nor zen eta izen-deiturak zein zituen jakin dugu horri esker.



Pandemiak bizitzaren bi aurpegi erakutsi dizkigu: zaurgarritasuna eta eskuzabalatasuna, ziurgabetasuna eta interdependentzia.

Konfinatuta egon bitartean bizi izandakoetatik abiatuta, zerk batzen eta humanizatzen gaituen aztertuko dugu, zalantzaz jositako bolada honetan zer ikasi dugun azpimarratuko dugu, joan den hilabeteetan bakarka eta gertukoenekin batera hasitako solidaritatearen bide hori urratzen nola jarraitu ikasiko dugu, eta komunitatetik gizartera eta mundura nola zabaldu hausnartuko dugu.

Esanetik egitera

Ez dago asmatzerik egoera nolakoa izango den material hauek lantzen ari zareten garaian —eta horrexek frogatzen du hobekien ez garela unibertsoaren zilborra, eta ezin dugula dena lotuta eduki—. Baina Covid-19aren pandemiaren ondorioz konfirmamendu esperientzia bat igaro izanaren ziurtasuna dugu. Eta hortixe abiatuko gara.

Talde txikitan nahiz ikastalde osoan, hitz egingo dugu bizi izandakoaz. Solasean lagungarri gerta dakizuen, hona hemen galdera gutxi batzuk:

- Nola definituko zenuke, hitz pare bat erabiliz, konfinatuta egon bitartean bizi izan duzun esperientzia?
- Zeren falta sumatu duzu gehien bolada honetan?
- Eta zer kostatu zaizu gehien?
- Zertan eragin die pandemiak familiakoekin, lagunekin eta, oro har, jendearekin dituzun harremanei?
- Esperientzia honetatik ezer ikasi al duzu? Zer?
- Nola egingo zenioke aurre antzeko egoera bati?

Eztabaida horren ondoren, taldea, “Vecinoo” film laburra ikustera gonbidatu, eta komentaturikoarekin konparatuko dugu. Kontua ez da eaere berdin jokatu duzuen ohartzea, baizik eta bideoak zer irakasten digun aztertu eta konfinatuta egon bitartean bizi izandakotik guk ere antzeko ondorioak atera ditzakegun ikustea.

Aukeran hobe begiraleek aurretik ikusten badute bideoa, filmak zer balio eta ikasbide transmititzen dituen aztertu eta, gero, horiek guztiak taldearen errealitatera egokitze-ko. Honatx balio eta ikasbide horietariko batzuk:

Entzuketa, umorea une zailenei aurre egiteko baliabide gisa, komunikazio desblokeatzailea; pazientzia; gertukoenen zaintza; keinu txikien balioa; esfortzu bateratuen indarra; besteen alde bizitzeak norberarentzat opari gisa duen garrantzia; solidaritatearen eta zaintzen kutsagarritasuna; zailtasunetan bat egitearen balioa; zailtasunak zailtasun, bizitzeko gogoari eustea; gertukoena zaintzea beste pertsona batzuk zaintzeko lehen urrats gisa; besteen oinazea aintzat hartzea, norberarena sendatzen hasteko; elkarri lagunduz, gertukoenekin sareak ehuntzea, leihora irtetearen balioa...

Amaitzeko, balkoiaren erreferentzia eta sinbologiaren garrantzia: balkoia, terraza, leihoa irekitzek, errealitatea bere luze-zabalean erakusten digu. Etxean sartuta egon arren, bizitzari eta besteei lotuta egoten jarraitzeko aukera eman digu. Eta hori gutxi ez, eta ezagutzen ez genituen errealitateak lehen aldiz ikusi ditugu horri esker. Eta horrek sekulako garrantzia izan du, eta oso aintzakotzat hartu beharko genuke aurrerantzean.

Bideoa ikusi eta komentatu ondoren, itzul gaitezen berriz ere goraxeagoko galdera-sortako azken bi galderetara, eta galdera probokatzailerako bat gehitu dezagun:

- Esperientzia honetatik ezer ikasi al duzu?
- Nola egingo zenioke aurre antzeko egoera bati?
- Zer egin dezakegu, egoera global honek sorturiko espiritu solidarioak bizirik iraun dezan?

Gonbidatu taldea azken bolada honetan ikasitakoarekin lotuta zer konpromiso konkretu har litezkeen aipatzeko. Laguntza modura zenbait adibide eskaini ditzakegu: bizilagunekin hasitako harremanari eutsi; adineko pertsonak edota kalera irteteko zailtasunak dauzkatenak zaintzen jarraitu; aitona-amonengana bisitan sarriagotan joan; otorduetan telebista itzalita edukitzeko ohiturari eutsi; auzoko, parroko... zaintza-sarea zabaldu.

Hausnartu eta eskerrak emateko

Utz ditzagun balkoiak eta leihoak zabalik. Etxeak egurasteko, bizitzarekin kontaktua eta perspektibarik ez galtzeko, ikusteari ez uzteko, esanak eta sentipenak partekatzen jarraitzeko... Ez ditzagun gortinak zabaldu, horrek komunitatea ehuntzeko eta besteei gure bizitzan sartzeko bidea emango baitigu. Ez izan leihoak zabalik uztearen beldur.

Leihoak zabalik utzi, eta besteak sartuko dira gurera, Jainkoa bera sartuko da, bititza eta errealitatea sartuko dira, beren oinaze eta pozekin, beren argi eta itzalekin. Baina, batez ere, besteen bila irten, elkarren hurko bihurtzeko.

Ireki zure atea

(www.pastoralsj.org)

Jauna: gure mundura etorri
eta dei egin diguzu
gizon-emakume guztiei
gure bihotzeko atea
ireki diezaiegun.

Zuk esanda dakigu
norbaitek atea jotzen
badigu, zeu zarela
gurera datorrena.

Zuk esana da:
"Hara, atean nauzu deika;
norbaitek ahotsa entzuten badu
eta atea irekitzen,
harenean sartuko naiz
eta elkarrekin afalduko dugu".

Jauna:
izan gaitezela gure senideen
bitartez zure ahotsa
entzuteko gauza,
eta ireki diezazugula atea,
zu gurera sartzeko eta, zurekin,
gizaki guztiei abegi egiteko.

Hurkoa ez da aurrez existitzen den zerbait.
Hurkoa egiten den zerbait da.
Hurkoa ez da nirekin odol-harremanak dituena,
arrazakide edo gogaide dudana,
nirekin negoziak egiten dituena...
Ezein gizakiren aurrean,
berdin da arrotza edo etsaia den,
harengana hurbiltzen nauen
urrats bat aurrera egin,
eta ni neu bihurtzen naiz hurko.

Hurkoa

(Carlo Maria Martini)

